

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### **Kide anitzeko organoen bilkuretara benetan joateagatiko ordainsariak**

Bo190712G. Oiongo udalbatzak erabaki du araubide ekonomiko hau ezartzea kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik. Araubide horrek zati finko eta zati aldakor bana izango ditu. Udal ordezkari guztientzat berdina den zati finkoaren bidez, kide anitzeko organoetara, bileretara edo karguaren ardura diren ekintzetara benetan joateagatik ordainduko da Zati aldakorraren bidez, aldiz, bereizi egingo dira karguaren ardura diren eginkizunak. Honela:

- a) Udalbatzan parte hartzeagatik, zati finkoa: 30 euro.
- b) Irizpen batzordeen ohiko bileretara joateagatik, zati finkoa: 35 euro.
- c) Batzordeburu jarduteagatik, zati aldakorra: 25 euro.
- d) Bozeramaile Batzordearen bileretara joateagatik, zati finkoa: 25 euro.

Kide anitzeko organoen bileretara ez joateak diru hori jasotzeko eskubidea galtzea dakar beti. Justifikazio partea sinatuta egiaztatuko da bileretara joan izana. Sei hilerik behin egingo da esleipenaren sortzapena eta likidazioa. Udalbatzaren erabakiz aldatu ahal izango da kalte ordainen araubide hau.

Oion, 2019ko uztailaren 27a

*Alkatea*

**EDUARDO TERROBA**